

Mendiyeñ diabetatzeen gañian

ITZ LABUR BATZUEK

(Bergara-ko euskal-itiz-jostaldietan aipamen onragarria irabazia.)

ONDO dakigu guziyak, erriyak daukaten aberastasunetatik aundi-yenetako bat dala bere mendiyak ematen dioten errenta.

Arbolez bere mendiyak choll estaliyak daukaten erriyak, noiz nai diru oparoaren jabe daude ta ez dezateke estutasun aundirik igaro.

Orregatik Ayuntamentu denak bidezatu bear dituzte beren egiñalak, mendi arbolez ondo ornitutakoak idukitzera, bada len esan dan bezela, larritasun chiki edo aundi batean arkitzen diranean diruaren faltan, arbol batzuek saldu ta irtengo dira beartasun artatik, bada beti zertarako edo artarako arbol erostunik ez da faltako.

Ortarako bear bearreko gauza da beti mendiyari laguntzea.

Premirik ez danian arbolik ez bota, aldan guziyan landare berriyak ipiñi soll arkitzen diran tokietan. Ori litzake bide zuzenetik joatia.

Eginbide onetan ardura askorekin ari bear dute, bada alegiñ guztiak egiñ arren beti gertatuko dira geyagoren premiyan.

Badira erriyak mendiyak guchi edo geiago baserritarren mendian daudenak.

Erriyak daukazkiten mendi zaitzariak beren lagunak edo adiskideak dituzte, ta adiskidetasun orrek ematen dioten esaguerakin egiten dute egoki datorkiotena.

Ala gurdi-pirtika, saski egiteko allaba, aitzurkirten, sutarako, karo-biya pistutzeko ta beste edozeiñ gauzetarako arbolak edo egurrak falta dituztenian, esaten dizkate bi itz mendi zaitzariari, ta aizkorak egiten ditu egitia komeni ez diran gaiztakeri gogorrak.

Bakidaro erriko jaun agintariak ez dira mendian ibilli zaleak izaten, eta artatik ez dute laguntza guchi ateratzen mendi gizonak, beren mesedean eta mendien kaltean.

Ez dezazutela uste nik nai detana dala arbolak dauden bezela mendietan beti ustia, ez.

Biar dan urtean ebaki bear da egurra ikatz biurtzeko, edo sua egiteko.

Eche berri bat egiten asten diranean, eman bear dira arbolak echia jasotzeko.

Tren bide bat ipintzen asten diranean, eziñ litezke ukatu burnibidea jartzeko bear diran trabiesak egiteko arbolak. Eta era berian beste modu ontako gauzetarako bear diranean.

Nik esan nai detana da, bear danian menditik zerbait, ez dala ukatu bear, non eta kalteren bat ez datorkioten berai.

Ortarako chit komeni izango litzake, norbaitek zerbait eskatzen duenian, mendira joatia ikustera mendi gauzetan aditzen duen gizon bat, eman dezan bere iduria, ta iduri au eskatzen duen alderakoa baltiz, berak erakutsi dezala non, noiz eta noletan ebaki bear diran arbolak edo egurrak, bada jendearen gain utzi ezkerro, kalte gogorrak etorri litaizkioteke mendiyai, zergatik jakiña da bakoitzak gerentzat ongi dijuakigun ura egitea gustatzen zaigula, ta, au ondotik bota, bestia gerritik ebaki, bat zutik utzi, ona beretzat ez dalako, ta besteari adarrak moztu, ala gelditzen dira mendiyak ichura chartuak eta ondatuak franko.

Norbaitek esan lezake: mendiyetan ordia millaka ta millaka eziñ konta ala arbol daude ta batzuek bota arren noizik bein, badago, bai, piškabateko aña egur. Gañera orchen kobratzen dute jabiak arbolen baliyua.

Orrela mintzatzen danari erantzungo nioke: bai, egiya da zuk esan dezun ori guztiya, bañan, esan baterako botatzen baditugu irurogei edo larogei arbol, mendi arri egurra ebakitzeko garaya irichitzen zayonian nai ta nai ez arbol oyek eman beartzuten egurra guchiago izango da. Beste batek bota ditzala andikan laster beste larogei, ta bide orretan jarraitzen badegu, ez bi urtian eta zortziyan ere segurkiro, baña benturaz ogei edo berrogei urte barru mendiyak soll-soll geldituko lirake, zuentzat geyago arbolik ez litzake ta erriyak mendiyak ematen zieten errentak ez lituzteke topatuko.

Egin zazu kontu gaur poltzikuan artzen dituzula ogei milla errial. Bazabiltza pirrindi-parranda batera joan eta bestera joan, neurri gabe

gastatzen edo nai badezu chu-chur pasatzen, baña inondik diru berri-rik ez datorkizula, ez det esaten bi illabetian gastatuko dituzula diru oyek denak, bañan urte guchi igaro baño len arkituko ziñake arditik gabe.

Oriše bera gertatuko litzake mendiyakin ere. Piškaka-piškaka botiaz, bakanduko lirake arbolak, eta urtien buruan mendiyak geldituko lirake arrunt soilldu ta.

Oraiñ bada. ¿Zer egingo zenduke ogei milla errial ayek beti zerekin edukitzeko? Dударик gabe guchi gastatu, premi egietakoa dezunian bakarrik eta aldan guzian zerbait diru berri poltzikuan sartu utsa gelditu ez dedin zure gordairua.

Bada ori bera egin bearda mendiakin ere. Arbolak ebakitzen diranean beren baliyua artu ta landare berriyak ipiñi uts-une ayek betetzeko.

Badira Ayuntanientu chit kontuzkoak, norbaitek arbolak eskatzian esaten diotenak:

—Bota zentzake arbol oyek, baña baimande edo kondiziyo abekin:

«Pagatu bear dituzu onenbeste pezeta, ta botatzen dituzun ainbeste landare sartu bear dituzu beren tokiyan, eta landare oyek igartuko balirake, berriz eta berriz jartzera biartua gelditzen zera, ichasten diran artian.»

Denak orla egingo baluteke ez litzake mendiyak soillduko liraken bildurrik, baña doakabez mendi gauzetan zabarken eta lasaitasun asko izandu da, ta zabarkeri ta lasaitasun oriek dirala meriyo kalte aundi-yak izandu dira.

Orregatik noski gure Dipuziyo chit maiteak, begiraturik beti begiratzen duen bezela Probintzi onen onari ta bere aurreratziari, ta jakiñik mendietatik aurrerapen ta mesede asko datozkigula, ibilli azi ditu gizon asko-jakiñak mendiyak ikusten, ondo esamiñatu ondoren erakutsi dezaten zer egiñ bear dan aurrera berak bear bezela gordetzeko.

Ipiñi ditu erri batzuetan mintegiak, jarri ditu baita ere mendi zaitzariak inork kalterik egiñ ez dezan eta artu ere bai beste mesede aundiko neurriak mendiyak onerako.

Ikusirik bada gure Diputaziyo chit goituak egiten dituen alegiñak mendiyak arbolez betetzeko, ta beardan arreta guziyarekin berak merezi duten beziñ ongi kontu egiteko, Ayuntamentuak ere biartuak daude Diputaziyuak asaldu duen bide arri jarraitzera, ta erriyen ona opatzen duten gizon denak ere lagundu bear dute bakoitzak aldeza

moduan, zalatuaz norbait ikusten dubenian bear ez diran gauzak egiten ari dela, ta modu orretan uste det nik irichi litekiela bear bezela bukatzera Diputaziyuak asiera eman dion lan eder ori.

Baserriko jendiak ere goguan iduki bear du, arbolik ez dan tokian nekazariak ez dirala izaten arbol asko diranetan bezela.

Ez bezaiote gañera astu mendi soillak dauden Probintzietan ugalde ikaragarriak izaten dirala.

Maiz irakurtzen da albistarietan an edo emen erriyo bat bere eiseiten edo lekutik irtenik ondatuak laja dituela baster guziyak.

¿Nola gertatzen dan ori? Oso erraz da esagutzen. Euri asko ta gogor egiten du, mendietan trabarik ez du urak arkitzen, eta urgai otz edo katarata batetik bezela an dijua gaiñ-bera euri-ura ondatzen dituela aurrian topatzen dituen gauz gustiyak.

Emen ere egiten du euri asko ta maiz, baña nola mendiyak guchi edo geigo arbolez beteak bai dauden, beren adar eta ostoak kentzen diote indarra, chukatzen dute ura, ta geyegi duten guziya an dijua erre-kacho edo erriora eztiro-eztiro goitik bera bidean billatzen, dituen arbo-len onduan indarra kentzen diotelako.

Orregatik emen oso nekez sortzen dira ugalde ikaragarri oyek, eta orregatik beragatik gaude denak biartuak mendiak maitatzera.

Bete ditzagun bada arbolez utsik dauden lekuak, jarraitu Diputaziyo onak erakusten digun bideari eta erriyak mesede aundiyak irichiko dituzte.

ENRIQUE ELICECHEA

